



TOLOSAKO  
UDALA

## **2. DIRULAGUNTZA LERROA. GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUNAREN ARLOKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK.**

Elkartearen jardueraren xede diren kolektiboei zuzendutako arretako proiektuak edo jarduerak garatzeko ematen diren dirulaguntzak dira. Kasuan-kasu, eman ahal izango dira, baita ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuek euren jardunean antzemandako premia zehatzak bideratzeko beharrezko diren proiektuak edo jarduerak garatzen dituzten elkarteei.

Dirulaguntzen zenbatekoak hauexek izango dira, beti ere, baloratutako puntuazioa betetzen bada:

- 40 onuradun edo gutxiago: Gehienezko 1.000€ko muga eta gutxienezkoa 100€koa, kostuaren %80ra arte.
- 41 eta 80 artean: Gehienezko 4.000€ko muga eta gutxienezkoa 100€koa, kostuaren %80ra arte.
- 81 onuradun baino gehiago: Gehienezko 6.000€ko muga eta gutxienezkoa 100€koa, kostuaren %80ra arte.

### **NORK ESKA DEZAKE?**

Gizarte arloan jarduten duten irabazi-asmorik gabeko edozein elkartek eta gobernuz kanpoko elkarteek eskatu ahal izango dute diru-laguntza hau. Baldintza hauek bete behar izango dirtuzte:

- Tolosako udalerrian izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkariak.
- Eusko Jaurjaritzaren Elkarten Erregistroan edo Tolosako izaera Sozialeko elkarten erregistroan egongo dira.
- Jarduerak Tolosako udalerrian garatuko dira. Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Tolosan ordezkariak ofizialik ez izan.



TOLOSAKO  
UDALA

#### AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Proiektuaren inprimakia (I. Eredua).
- Erakunde eskatzailearen estatutuak.
- Zinpeko aitortpena (V. Eredua).
- Entitate eskatzailearen datuak eta IFZaren kopia.
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko betebeharrak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria (edo VI. Eredua).